

GIZA MUGIKORTASUNA

DESITXURATZEN DUTEN MEZUAK

Hainbat mezu baztertzaile, arrazista eta xenofobo agertzen ari dira, herritarren artean alarma eta nahastea eragin nahian. Mezu horien aurka lanean jarraitu behar dugu, harrera eta abegi ona izan daitezen gure komunitatearen ezaugarriak, gizarte plural eta bateratuago bat eraikitzeko helburuaz.

«Dei efektua»

Adierazpen hau erabiltzen ari dira mugan pertsoneri tratu gizagabea ematea legitimatzeko. Caritasek ez du onartzen jarrera hau, ez nazioarteko hitzarmenak ez betetzea justifikatzeko, ez pertsoneri bideko herrialdean eta helmuga-herrialdean giza eskubideak ez errespetatzea justifikatzeko. Iruditzen zaigu edozein «dei efektu» baino askoz indartsu eta errealagoa dela egiazko «*kanporatze-efektua*»:

- Pertsonak beren jatorrizko herrialdeak atzean uztera derrigortuta daude, haietan ezinezkoa zaielako duintasunez bizitzea.
- Ez da bila aritutako proiektu bat, borondatez desio dena.

«Inori ez dakiola falta beharrezko sorospenik» (Frantzisko Aita Santuak).

«Guztiak hona datoz»

Gure esperientziaren arabera mugak ixten direnean eta pertsona migratzaile eta errefuxiatuen mugimenduak zailtzen direnean, pertsonen mina handitzea eta are heriotza gehiago eragitea baino ez dela lortzen.

«Jende-oldea edo inbasioa da»

Migrazioetarako Nazioarteko Erakundearen arabera, aurtengo lehen seihilekoan 42.845 pertsonen iritsiera erregistratu da Mediterraneotik; 2017an, berriz, 85.751 pertsona izan ziren, eta 2016an, 215.997. Hau da, oro har iritsierak murriztu egin dira.

«Horri dagokionez, berretsi nahi dut gure erantzun bateratua lau aditzen inguruan artikula litekeela: hartu, babestu, sustatu eta integratu» (Frantzisko aita santuak).

«Hartu itzazu etxean»

Estatuek hartutako konpromisoak:

- Bada Nazioarteko Itsas Zuzenbide bat, Montego Bay-n onetsitako hitzarmenean jaso, eta partaide diren estatu guztiei (EBko guztiak) betebeharrak ezartzen dizkie, bizia babestu beharretik hasita.
- Asilo-eskubidea 1951ko Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Konbentzioan, Espainiako Konstituzioan eta Asilo-legean bilduta dago, bai eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko 14. artikuluan ere. Aitortza horrek berekin dakar asiloa harrera-baldintza duinak bermatzea.
- Migratzaileak eta asilo-eskatzaileak dagokien nazioarteko tresnetan aitortutako eskubide espezifikoen titularrak dira, eta hitzarmenetan (1990eko langile migratzaileen eta horien familien eskubideak babesteko hitzarmena, 1951ko Genevako Konbentzioa eta 1976ko New Yorkeko Protokoloa) esku hartzen duten estatu guztiak hori onartzera behartuta daude.

- NBEren haurren eskubideei buruzko konbentzioaren arabera, adingabeak eskubideen titularrak dira, eta partaide diren estatuek (EBko guztiek) dagozkien betebeharrak dituzte horrekin lotuta. Estatu gehienetan dituzte legeak –hemengo Adingabearen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoa, kasu– lehentasunezko printzipio juridiko hau argi uzteko: adingabearen interesa bermatu behar da.

